

# Pello Lizarralde: “Edozer gauza onartu beharrean dabil langilea ogibidea izango badu. Oso garai latza da egungoa”

2020/10/23

*Pello Lizarralde.*

NEOLIBERALISMOAREN  
HASIERAN KOKATU DU PELLO  
LIZARRALDEK BERE AZKEN NOBELA, ‘ARGIANTZA’ (EREIN, 2020),  
“EGUN BIZI DUGUN GARAI HAU ORDUANTXE HASI ZELAKO”.  
ORDURA ARTE PARADISUAN ERE EZ GEUNDEN ARREN, OSO GARBI  
DU UNE HARTAN ASKO HASI GINELA GALTZEN, ETA  
PANDEMIAREN AITZAKIAREKIN ORAINDIK KOSKA ESTUAGOAK  
ETORRIKO DIRELA.

**Liburuaren izenburua ‘Argiantza’ da, baina ‘Ilunantza’ ere izan omen zitekeen. Zergatik egin zenuen lehenengoaren aldeko hautua?**

‘Argiantza’ izango zela erabakita neukala konturatu nintzen ‘Ilunantza’ ere izan zitekeela. Bien definizioak ikusten hasi eta jabetu nintzen, azken batean, bien arteko ezberdintasuna ikuspuntuan datzal; batzuetan iruditzen zaizu ilunantza dagoela, besteetan argiantza. Baina edozein kasutan argi askorik ez dagoela. Hori da ideia. Ez da aldarte kontua; baizik eta han egon eta zuk zer ikusten duzun. Batzuek botilaren adibidea jartzen dute, alegia, botila erdi hutsa edo erdi betea ikusten duten... Horren antza ematen diot nik ere definizio horri. Beraz, ‘Ilunantza’ ere izan zitekeen, bai; baina erabakita neukan ‘Argiantza’ izango zela eta halaxe utzi nuen. Idazten hasi aurretik beti erabakia izaten dut izenburua. Horretan ez dut zalantza handirik izaten.

**Zinema-aretoen munduan kokatu duzu istorioa. Berau ezaguna zaizulako, akaso?**

Tira, ez nuke esango mundu hori nik aukeratu nuenik. Begira, nire liburu guztien sorreran irudi bat egoten da, lehenengo bi orrialdeetan agertzen dena, azken batean. Urteetan izaten dut buruan biraka irudi hori, eta irudi hori ezartzen denean badakit liburu bat egon litekeela horren atzean. Nobela honen kasuan, lehenengo irudi horretatik tiraka atera zen beste gune bat, bukaera aldean agertzen den bilera hori. Beraz, bi elementu horiek finkatu zirenean ikusi nuen liburua bazegoela. Zinema atariaren irudia, itsasoarena... hortxe nituen, eta handik etorri ziren gainerakoak. Baina egia da zinema-aretoen mundua ederki ezagutzen dudala: akomodadore asko ezagutu ditut. Nire aitona ere akomodadorea izan zen: fabrika lan egiteaz gain urtetan Zumarragan akomodadore lana izan zuen. Horrez gain, gerora ere ezagutu ditut akomodadoreak Donostian, Iruñean zein herri txikietan, edo aretoez arduratzen ziren pertsonak. Oraindik ere ezagutzen ditut, haiekin askotan hitz egiten dut, badakit zein egoeratan diren eta izan diren areto horiek, ezagutu ditut herri txikietakoak, hiri handietakoak, denetarik, eta bai, hurbila zait mundu hori. Baina eleberriaren sorrera hasiera-hasierako irudi horrek ekarri zuen. Gero, jakina, horri buruz idatzi nahi baduzu gaiaren inguruko xehetasunak ezagutu behar dituzu, bestela ez baita oso sinesgarria izaten kontatzen ari zaren hori. Baina sorrera irudi horretan dago.

**Horrek ere atentzioa eman dit, alegia, irudi bat izaten duzula abiapuntuan. Uste dut, gainera, hasierako eta amaierako esaldia ere aipatu izan dituzula abiapuntu gisa.**

Bai. Aipatu ditudan bi gune horiez gain, idazten hasi aurretik beti finkatuta izaten ditut liburuaren izenburua, lehenengo esaldia eta azken esaldia. Gero erdiko trontzoa idatzi egin behar da, baina elementu horiek euskarria ematen didate, segurantzaz hasitakoa bukatu egingo dudala. Gainera, hasi arte pazientzia izaten dut, lasai egoten naiz, gauzak ondo pentsatzen ditut eta behin horiek pentsatutakoan badakit hasiz gero bukatu egingo dudala seguru. Idatzi, edozer gauza idatz liteke; oraintxe ere hasi ninteke zerbait idazten, baina horrek ez dizu ezeren segurtasunik ematen. Elementu horiekin badakit behin jarriz gero bukatu egingo dudala; bestela, ez du merezi.

**Beraz, beste guztia bidean deskubritzea gustatzen zaizu?**

**Nobelaren kasuan zailagoa izan liteke hori, esaterako, ipuinen kasuan baino...**

Bai, izan liteke. Baditut mugarri batzuk, eta mugarri horiekin eta beste irudi batzuekin badakit bidea erdi eginda dudala, baina erdizka bakarrik. Seguru samarra naiz idazteko orduan, poliki idazten dut oso. Gero badakit lana dela, batez ere, zuzentzea eta orraztea, eta behin eta berriz horri bueltak ematea txukun samar utzi arte. Baina ez dut presarik izaten. Gainera, luzera ere ez dut sekula pentsatzen. Nire tamaina horixe izaten da beti. Nik idatzitako liburuei begiratzen badiezu, orrialde kopuruari dagokionez antzekoak izaten dira. Ez da aurretik pentsatua izaten, horrela ateratzen zaizkit. Nireak ez dira 300 orrialdeko nobela koralak; horiek kontrolatzeko zailagoak izaten dira. Horrela errazagoa da tankera hartzea: badakizu gero beti zuzenketarako ere denbora izango duzula eta gauzak ondo samar egingo dituzula; badakizu tamaina horretan beti errazagoa izango dela.

**Protagonista nahiko galduta dabil: alde batetik, ez du jubilatu nahi; bestetik, ezagutu duen mundu horri eutsi nahi dio, salbatzen saiatu.**

Bera galduta dabil eta, gainera, badaki berak ezagutu duen mundua galtzar dagoela. Eta beraz, galtze hori bi aldetakoa da: batetik, noraezean dabil eta, bestetik, galtzen ari da ezagutu duen mundua. Gainera, orain jarri dioten lan horrek ez dio segurantza handiagorik ematen, baizik eta are gehiago mugitzen dio lurra oinpean, eta ez daki hortik onik aterako den eta bere ahaleginak ezertarako balio izango ote duen ere. Hortxe dabil, galdu samar eta hurrengo pausoa zein izango den ere seguru ez dakiela.

**Aipagarria da nola biribiltzen duzun kontatzen duzun hori deskribapenekin. Nahiko bisuala da kontaera, badu zinematografikotik. Baina era berean hizkuntzak ere garrantzia du.**

Oso ondo neurtu behar dira hitz guztiak. Beti esan izan didate zinemaren eragina dutela nire liburuek, eta zentzumenek garrantzia handia dutela. Niri narrazio sentsozialak interesatzen zaizkit, azken batean zentzumenen

bidez jasotzen baitugu mundua. Nire iritziz, psikologikoetan-eta askotan pertsonaiek hausnarrean pasatzen dute denbora, eta esango nuke normalean ez dugula hori egiten; normalean jaso egiten dugu mundua eta handik pixka batera edo puska batera jasotako horiek hausnartu eta horietatik ondorio batzuk ateratzen ditugu. Uste dut oso inportantea dela kontatzeko orduan mundu fisiko hori ekartzea, eta horretarako kontu handiz hartu behar dituzu kontatzen direnak, deskribapenak zein bestelakoak. Niri ez zait interesatzen narrazio psikologikoa; niri interesatzen zait pertsonaiek jasotzen duten hori ondo ematea eta horietatik gero irakurleak ondorio batzuk ateratzea. Niretzat, adibidez, esatea pertsonaia bat triste dagoela porrota da kontalari gisa. Nik hori bestela adierazi behar dut, beste lan bat jartzen diot nire buruari. Gauzak hain sinple esateak sinplekeria dakar. Gainera, hori eginez gero irakurleari bidea estutu-edo egiten diozu, gauzak gehiegi eginda ematen dizkiozu eta ez diozu uzten tarte bat bere ondorioak ateratzeko eta bere narrazioa egiteko.

### **Esango nuke etengabeko estimuluak behar ditugun garai honetan idazkera pausatua dela zurea.**

Nire lagun batek esaten zidan: “Hik arazo bat daukak liburuak aurkezteko orduan: abenturarik gabeko nobelak dituk”. Ez dago gertakari handirik, ez dago hilketarik, ez dago gauza oso dramatikorik. Nire ustez historiak ez dakar berez literatura. Askok esaten dute: “Ni hasiko banintz kontatzen gertatu zaidana...”. Tira, horrek balio du lagun artean baina literaturan beste zerbait behar dela iruditzen zait, literatura mota batean behintzat. Niri ez zait interesatzen oso narrazio dramatiko, gorabeheratsu eta joan-etorri betea. Niri beste zerbait interesatzen zait, eta horrek arazo bat dakar idazten duzun hori norbaiti saldu nahi diozunean. “Zer gertatzen da? Zertaz ari da zure nobela?”. Istorioa kontatzen hasi eta pentsatzen duzu horretarako hobe nengokeela beste nonbait, ezin baitiozu istorio apasionanterik kontatu: halako joan dela, ekarri duela, hil duela, gero dibortziatu dela... Ezin diet horrelakorik kontatu. Hori beste literatura mota bat da. Nire bidea bestea da. Nik badakit irakurleak baditudala, idazten dudana hori estimatzen dutenak, literatura mota hori estimatzen dutenak. Eta horrekin konforme nago, seguru samar nago zer egin nahi

dudan. Askotan ez dakizu zer egin nahi duzun baina badakizu oso ondo zer ez duzun egin nahi. Nik nire nobeletan ez ditut egin nahi aurretik esan ditudan horiek.

## **Neoliberalismoaren hasieran kokatu duzu nobela, lortutako zenbait eskubide galtzen hasi ziren momentu hartan.**

Bai, oso momentu garrantzitsua izan zen hura. Orain bizi dugun hau orduantxe hasi zen, urte haietan. Ordura arte kapitalismoak bere bidea egin zuen baina langileak ere defentsa batzuk pilatu zituen eta aurreko urteetan-eta lan-hitzarmenak, grebak, mugimendu sozial oso garrantzitsuak izan ziren: langileriak lortu zituen berme batzuk, gero sindikatuak atera ziren... Reagan eta Thatcherren garaian neoliberalismoak koska bat estutu zuen bere sistema eta sistema horrek ekarri du orain bizi dugun hau. Horrekin batera gauza asko etorri ziren. Hemen zinema-aretoena aipatzen dut baina erantsi geniezazkioke: lanaren ideia berri bat, irabaziarena eta galerarena, eskubideena... Askok hasi ginen galtzen garai hartan, orduan paradisuaren ere ez geunden arren. Gainera, sistema horrek, besteak beste, ekarri zuen bakartzea eta, ondorioz, langileak defentsa gutxiago izatea. Bakartzea alde askotatik: lehen elkarrekin joaten ginen zinemara, pelikula ikusi, zinematik atera eta tertulia egiten genuen eta, gainera, oso publiko zabala zegoen, ez bereziki zinezalea... Azkenean, VHSarena iraultza izugarria izan zen: alde onak ekarri zituen baina txarretako bat izan zen etxera bidali gintuela, etxean ikustera bultzatu gintuela, pelikulak erosten hasi ginela eta etxean ikusten genituela. Zineman galerak izaten hasi ziren. Gero etorri zen multizineen operazio hori, oso ondo atera ez zena: piztu zuen neurri batean pelikulak zineman ikusteko grina baina oso gutxi iraun zuen, eta orain ikusi besterik ez dago zertan gauden. Uztailean Iruñean dozena bat pelikula ikusiko nituen, eta gehienetan dozena erdi lagun ginen. Egoera ere berezia da baina zinema-aretoak leku seguru samarrak dira. Hala ere, jendeak ez du kasurik egin eta etxean jarraitu du, eta hemendik aurrera uste dut panorama oso beltza datorrela industria horretan. Beraz, bai, hark ekarri zuen hori, garai hartan jarri dut hura izan zelako mugarri oso garbia: kapitalismoaren gogortze bat, neoliberalismoaren ezartze bat latza eta oso ondorio latzak izan dituen. Gainera, orain pandemiaren aitzakiarekin

etorriko dira oraindik koska estuagoak: telelanaren sistema oso arriskutsua iruditzen ziat, eskubideen galtzea... Horiek denak garai hartatik datoz, orduan hasi ziren. Ordura arte halakoak pentsaezinak ziren. Ordura arte izan ziren egoera oso latzak, fabriketan-eta ordu asko eta asko egiten zituztenak, oso baldintza txarretan, istripu ugari, ezagutu ditut horiek txikitatik... Baina 70eko urteetan etorri zen langileen indartze bat, babesa hartzeko modu batzuk. Horrek, ordea, hamar-bat urte iraun zuen eta handik aurrera dena izan da gainbehera oso latza.

### **Etorkizuna oso beltza ikusten duzu, ezta?**

Oso beltza. Nik ez dut batere arrazoirik ikusten baikorra izateko. Ez naiz sekula baikorra izan, baina orain gero eta arrazoi gutxiago ikusten dut horretarako. Nik ez nuke nire burua ikusi nahi orain gazte batzuek duten toki horretan; oso larria iruditzen zait eta, gainera, oso defentsa gutxi dauka orain langileak, are gutxiago hasiberriak. Edozein gauza onartu beharrean dabil bere ogibidea izango badu, eta oso garai latza da. Zu gaizki baldin bazaude enpresa batean, zurekiko konplizitate pixka bat erakutsiko duen norbait aurkitzea oso zaila da. Oso defentsa gutxi dugu. Hori da larriena. Bakartu gaituzte, egoera horretan nork bereari begiratzen dio, lanak ditu berea ateratzeko, eta bestearena begiratzeko eta harekin batera aurrera egiteko modu gutxi dago. Hori oso latza da.

### **Esan izan duzu baita ere nekazaritzaren egoera, herri txikien desagertzea tragedia bat dela.**

Bai, erabatekoa, nire ustez XX. mendeko tragediarik handiena. Herri txikien mundua oso arrotza zaigu. Nik ezagutzen dut hurbiletik 12 urte eman ditudalako oso herri txikietako eskoletan maisu. Oso hurbila zait jende hori, mundua bera, eta min handia ematen dit ikusteak zer galdu den eta nola galdu den. Izugarria iruditzen zait. Eta gainera, egoera horri nolabait buelta ematen saiatzeko egiten diren saio bakanak bide luzerik egin ezin duten kontuak dira. Esaterako, zer emango dio landetxe batek herri bati? Bada, ezer gutxi. Bertako produktuen salmenta egiten duen negozio txiki batek ere ez dio irtenbiderik emango. Hemen kontua da landak, soroak, abereak eta bestelakoak sendotzeko eta nekazari horien baldintzak indartzeko zer egin litekeen. Nik uste Euskal Herria bereziki

gaizki dagoela Europako beste toki batzuei begiratuz gero: Italia, Alemania, Frantzia, etab. Haiek ere ez daude zoragarri baina gure nekazari eta abeltzainek baino defentsa hobea dute, baita dirulaguntza handiagoak ere estatuaren aldetik. Hemen gauza anekdotikoa geratuko da azkenean. Eta horren ondorioa da landa-mundu hori aipatzen denean era nostalgikoan aipatzen dela askotan, egiten direla gauza sinbolikoak, folklorikoak... Baina egiazko soluziorik ez da ematen. Urtean behin halako festa eginez edo feria bat antolatuz ezer ez duzu konpontzen. Nostalgia oso arriskutsu bat sortu da horren gainean eta soluziorik emango duen ezer ez da egiten.

### **Gaiz aldatuz, egun literatura light-a nagusi dela ere irakurri dizut.**

Mainstream deitzen duten hori, korronte nagusi hori, beti light izaten da. Izaten dira liburuak hortik ateratzen direnak eta arrakastatsuak, zorionez. Baina normalean, eta Euskal Herriak ere bide hori hartu du, arrakasta handiena duten liburuak literatura light horren barruan kokatzen dira, sentimendu onetan oinarritutako literaturan, pixka baterako kontsolamendua ematen duen baina irakurleari askorik eragiten ez dion literatura horretan. Iruditzen zait hori ezarrita dagoela eta hori kontsumitzen dela. Horretan ez gara diferenteak; beste gauza gehienetan ere ez, baina horretan ere ez. Literatura oso arina, beharbada azkar ahazten dena. Batzuetan efektista ere bai, elementu ustez moderno batzuk nahasita atentzioa emango duzulakoan egindako literatura bat. Gurean hori da nagusi. Beste gauza batzuk ere badaude, noski: gauza interesgarriak gurean ere badaude. Gustura asko irakurtzen ditut euskaraz idatzitako liburu batzuk. Zorionez itzulpenak ditugu, gainera, eta hori da literatura normal batek egin beharko lukeena: itzulpenak. Zuk ez duzu irakurtzen bakarrik euskaraz dagoelako, irakurtzen duzu interesatzen zaizulako. Eta gureak ematen du ematen duena, besteek bezalaxe. Ez gara oso ezberdinak.

Itzulpenak egin izan dituzu zerorrek, oso gogoko zenituen eta euskarara ekarri gabe zeuden lanenak.

Horixe egin dut, bai. Ez naiz itzultzailea, lau-bat lan itzuli ditut. Oso gogoko ditudanak ekarri nahi ditut euskarara, eta zorionez pozaldi handiak

eman dizkirate itzulpen horiek, bai baitakit liburu horiek irakurrita egile bat gustatu eta haren beste liburu batzuen atzetik ibili direla irakurleak, eta hori oso pozgarria da: erabat ezezagunak ziren idazleak gure artean ezagunagoak egin direla jakitea, alegia. Nire helburua horixe da, niri asko gustatzen zaizkidanak ekartzea, haien izenak gure plazara ekartzea.